

48. atala: Taldean

Maskota

48.1.- Jarri taldean eta erantzun galderai:



1. Zer animalia daramate astronautek espaziontzian?
2. Zein da Tasiok egin nahi duen esperimentuaren helburua?
3. Non topatu dute satorra?
4. Tasiok arazo bat dutela esan dio Eskisabeli. Zein?
5. Zer iruditu zaio Eskisabeli Kevinek satorrari izena jartzea?

48.2.- a) Entzun Txomin Artolaren Txuriko abestia. Bertan maskota baten istorioa kontatzen da. Hemen Ruper Ordorikaren bertsioa duzu, baina youtuben originala eta beste batzuk dituzu, nahi izanez gero: <https://www.youtube.com/watch?v=861MJm0ecAU>.

b) Jarri binaka eta osatu bion artean abestiaren bost paragrafoak.

- | | | |
|---|--|---|
| <p>1) Gu gazte giñadela
txalupa guztiak
zakurtxo bat ohi
zuten ontzi
barrenean
begi erne, abila, ez
zen zaunkaria</p> <p>_____</p> <p>_____</p> | <p>2) Seme esango dizut
nola gertatzen zen
puntutako arraia,
suelto batzuetan
legatza ospa, ihes,
txakurra jauzten zen</p> <p>_____</p> <p>_____</p> | <p>3) Lana horren saria
'txakurraren partia'
deitzen genuen
guziok, ongi merezia
maitea-maitea zen
txakur ehiztaria</p> <p>_____</p> <p>_____</p> |
| <p>4) Unea etorri da zuri
kontatzeko
zer nolako txakurra
zen gure Txuriko
uhin izugarriak ez
zuen izutuko</p> <p>_____</p> <p>_____</p> | <p>5) Goiz itsusi batean
ez naiz ez ahaztuko
bere lana beteaz
jauzi zen Txuriko
baga haundi artean,
ehiza ez utziko</p> <p>_____</p> <p>_____</p> | |

c) Ba al dago ulertu ez duzuen hitz edo pasarterik? Osatu istorioa guztion artean.

48. atala: Taldean


48.3.- Erantzun taldean maskoten inguruko galdera hauei:

- Izan duzue maskotarik inoiz? Edukiko zenukete? zein?
- Gure ortzinautek sator bat daukate. Edozein animaliak balio du maskota izateko?

48.4.- Antzekoak?

Txakurrek eta jabeek elkarren antza izaten omen dute askotan. Txakur bakoitza zein jaberekin lotuko zenukete?

- Nortasunez ere berdinak irudikatzen al dituzue?
- Nolakoak izango direla uste duzue?



Zure iritzia emateko, espresio hauek erabil ditzakezu:

- Nik uste dut burusoila c txakurraren antza daukala.
- Nire ustez, 3. txakurra eta C antzekoak dira.
- Seguru nago, emakumea a txakurraren jabea dela, berdin-berdinak dira.
- Niri iruditzen zait B mutila 4. txakurraren jabea dela.
- Argi dago C bulldogaren jabea dela.



48. atala: Taldean

Transkripzioa (03:14)

T- Johnson, laborategitik satorra falta duk.

K- Sator bat? Trebiñu II-ra sator bat ekarri dugula? Bada, lehen notizia.

T- Hi, ezinbestekoa duk satorra topatzea, e? Esperimentu oso garrantzitsu baten oinarria duk eta.

K- Zer? Satorrei ikusteko gaitasuna eman behar al diegu orain?

E- Sarasola, Johnson, benetan? Ongi begiratu duzue?

T- Horretan ari gara.

E- Nik ez dut ezer jakin nahi. Saguek eta beren familiako ile bolatxo horiek nazka handia ematen didate.

T- Johnsonek ez dit lagundu nahi satorra bilatzen.

E- Johnson...

K- Satorrarekin zein esperimentu egiten ari zareten esan arte, ez.

E- Tasio, mesedez.

T- Genetikoki eraldatutako satorrak prestatzen ari gara, lurra modu ekologikoan goldatzeko.

K- Beraz, asmoa super sator batzuk sortzea da, hauek sorotetan utzi eta lurra goldatu dezaten?

T- Bueno, labur esanda, bai.

K- Jodeer, ze pasada, lurra landuko duen sator-ejertzito bat!

T- Horrela esaten baduk, bazirudik...

K- Aurrerantzean, Tasio deitu ordez, Frankenstein Doktorea esango dizut.

K- Aizu Frankenstein, ez al duzu ezer faltan sumatzen?

T- Nik dakidala, ez.

K- Bada, niri galtzerdi bat eta galtzontzillo bat falta zaizkit.

T- Bada, horien bila hasten bahaiz, adi egon eta ea satorra azaltzen den.

E- Orduan, azaldu dela diozue?

T- Bai, Johnsonek topatu du.

K- Bai, nire galtzerdi eta galtzontzilloak hartu eta horiekin gordeleku moduko bat egin du.

T- Arazo bat daukagu, ordea.

E- Banengoen bada, ni. Errazegia zen.

T- Izena jarri nahi dio.

E- Ez da egia izango!

T- Bai, zoritxarrez, hala da.

T- Ez al haiz jabetzen izena jarrita ezinezkoa izango dugula harekin esperimentuak egiten jarraitu?

K- Baina hori, zergatik?

T- Bada, esperimentuetatik ez delako onik aterako.

K- Onik?

T- Ez dela bizirik aterako. Ez dela lurrera itzuliko, alegia.

K- Eta izena jartzen badiot...

E- Izena jartzen zaien momentutik maskota izatera pasatzen dira, eta ez dago atzera bueltarik. Ezin duzu haiekin esperimenturik egin.

K- KAXIANO!

T- Zer?

K- Kaxiano izena duela satorrak.

T- Aber, nolatan etorri zaik izen hori burura?

K- Bada, egia esan, ez dakit, baina aurpegira begiratu diot eta zast, burura etorri zait izena. Askok haserretu al da Eskisabel kapitaina?

T- Tabakoa erostera atera behar zuela esan eta konexioa eten dik. Zertan zebilek Kaxiano?

K- Galtzerdian sartu da lotara. Ikusi, bibotetxoko ileak soilik ikusten zaizkio.

T- Nahi ba duk, badizkiat nik artilezko galtzerdi bero batzuk...

J. eta K.- Kaxiano, Kaxiano... espazio-ontzi baten, Euskal Herritik kanpora...

48. atala: Taldean

Erantzunak

48.1.-

1. Sator bat.
2. Lurra era ekologikoan goldatuko duten satorrak sortzea, genetikoki eraldatutako satorrak.
3. Kevinen galtzontzilo eta galtzerdien artean.
4. Kevinek izena jartzea satorrari. Izan ere, horrela maskota bihurtu du animalia eta ezingo du esperimentuatarako erabili.
5. Ez zaio gustatu, eta Kaxiano izena jarri diola entzun duenean, lasaitzera joan da konexioa etenda.

48.2.-

- | | | |
|--|---|---|
| <p>1) Gu gazte giñadela txalupa guztiak zakurtxo bat ohi zuten ontzi barrenean begi erne, abila, ez zen zaunkaria ihes zihoan arraina harrapatzailea</p> | <p>2) Seme esango dizut nola gertatzen zen puntutako arraia, suelto batzuetan legatza ospa, ihes, txakurra jauzten zen 'ta bet-betan arraia hartzen zuen hortzetan.</p> | <p>3) Lana horren saria 'txakurraren partia' deitzen genuen guziok, ongi merezia maitea-maitea zen txakur ehiztaria txalupa betetzen zuen anima gabeak.</p> |
| <p>4) Unea etorri da zuri kontatzeko zer nolako txakurra zen gure Txuriko uhin izugarriak ez zuen izutuko arraia utzi baino, lehenago itoko.</p> | <p>5) Goiz itsusi batean ez naiz ez ahaztuko bere lana beteaz jauzi zen Txuriko baga haundi artean, ehiza ez utziko legatz haundi batekin ito zen betiko.</p> | |

48.4.-

